

# CAQUETÁ,

## *INPRESIOA GIPUZKOATIK*

**Erratutako irudia.** Bidaia egin baino lehenago, guk *Kolonbia* urruneko erreferentzia somatzen genuen, apenas erakargarria. Nahiz eta kultur arloan ezaugarri amankomunak izan, gizarte eta politiko mailan mundu problematiko oso azaltzen zitzaigularik urrun antzematen genuen.

Hala ere, ez da egia urruntasuna iritzi zuzenerako estimulu hoberena denik. Iritzi moralarako behintzat ez da akuilu hoberena. Sortu da inoiz izatez benetako enpatia, elkartasuna, laguntasuna, gizatasuna, urruntasunetik? Gutxitan edo inoiz ez. Ilustratua dirudien arren abstraktu eta sentigabea azaltzen den ezagutzak sustatzen dituen balioak formalak, minik gabekoak, iragankorrak, gutxieneko emozio-ezagutzarekiko ulertezinak dira.

Esan genezake ezagutze formal eta abstraktu hori errealitatea, kasu honetan Kolonbia-ko errealitatea, itxuraturik azaltzeko irudi, adierazpen guztiak batzeko, harrapatzeko gai dela. Baina ezinezkoa zaio inbentariatu ezinak diren inpresio, sentsazio eta intuizioen unibertso aberatsa hartzea eta igortzea, estatistikoki antzigabeak diren gizabanako eta taldeen keinu eta jarrerak, oneski kontutan hartu beharrekoak errealitate osoaren egiazko berri emateko. Lur honetako moduko errealitatea, *Caquetá (Kolonbia-ko Amazonía)* delako herrialde honetakolakoa eraldatzeko faktore indartsuak direnak.

Balioen eremua ere bada hau, azpimarratu merezi duen balioena, balio zehatzen eremu hori, balio hoién iraunkortasunak herritar eta herri honentzako etorkizun duina, askatasuna eta justizia iragartzen dituelarik. Guzti honen aurrean, bidaia hasi baino lehenagoko aurreiritzi urrun eta dohakabe hori zimeldu da oso, zerraldo erori da.

**Identitate hibridoa.** Egia esan herri honek zoratu egin gaitu, jende honek arrobotu egin gaitu, zeuon aldarte on hori nahastatu egin diguzue. Aurrerantzean ez gara izango ginenak. Egun gutxi hauetan zuekin guztiekin bizi izan garen intentsitateak geure identitatea eraldatu du, aldatu gaitu, geure urri eta lakar izaeran zeuen zalu eta erakargarri izatearen apurra ezarri du.

*Cartagena de Indias*-en hasita *Caquetá*-raino ez dugu aurkitu gure aberkide *Ursua* eta *Lope de Aguirre*-k hain zikoizki bilatu zuten *Eldorado* hura. Hala ere, *Manoas* desberdin batzuk topa ditugu, gizakiok izan dezakegun altxor preziatuen jabea izanik, hau da, elkartasunaren balioa eta potentziala, talde ekintza barneratzeko gaitasuna eta kemen komunitarioaren sendotasuna.

*Kolonbia* ez dago arazoen falta. Badauka itxaropena hala eta guztiz ere. Gizartearengan inbertitu, despolarizazioaren aldeko apostua eginez, lotura solidarioak eratuz eta talde-harrotasuna birgaitzeko ekintzak sustatuz. Eta horretan dihardu hain zuzen ere. Mota honetako hainbat programa arian-arian ikusi ditugu. Haien atzean, arrisku handiko aktibismoa aurkitu dugu, haren betebeharra garatzen den testuinguru latzaren jakinaren gainean eta era berean gizarte garrantzi handiko ekintzak burutzen dituzten pertsonen beti azaltzen duten erantzukizun etika horren jabe.

**Manigua-k gure urratsak zuzentzen ditu.** Hitzez nekez adieraz daitezkeen gertaerak ikusi ditugu. Hala nola, *Roberto Solarte* dinamikoaren zuzenpean, postaletan azaltzen ez den *Cartagena de Indias*-eko larruazal horren konponketarako eta berreraikitzerako ekimen interesgarriak ezagutu genituen. *Bogotá*-n, *María Angélica Bueno*, *Mario López* eta *Inmaculada Arnaez*-en bitartez, berradiskidetze nazionalerako aukeren egoera aztertzeke parada izan genuen.

*Caquetá*-rako helduera zinez esperantzagarria izan zen. Tamal eta txokolatea oinarritzat, arepas, artoa eta yuca-z osatutako gosari oparoak, gozoak, dotoreak, detaile handiz *María Artunduaga*-k eta bere alaba *Marta Cruz*-ek prestatutakoak, gudan piztu zuen zuenarekiko lilura. Izan zitekeen beharbada unea *Amazonía*-ko gogo ubikua den *Manigua* gure arimetan sartu zeneko.

Ordudanik *Manigua*-ko arnasak gure mugimenduak babestu zituen. Lehenengo eta behin, *Florencia*-n, *Caquetá*-ko hiriburuan. Hiri hedatsua, zaratatsua, bere hiri izaerari ez dagokion aktibitate ikaragarriarekin. Honela ikusi dugu geuk behintzat. Ederra, baina bukatu gabekoa. Erakargarria, baina hiriko ezaugarri hoberen beharrean. Alkatesarekin topaketa, *Gloria Patricia Farfán*-arekin, baliokoa izan zitzaigun udal taldeak lanerako ezartzen duen plangintza estrategikorako ikuspuntua zenbait xehetasunez ezagutzeko. Plangintza idazkariak eta Departamentuko Arduradun Gobernadoreak *Luis Manuel Espinosa*-k eta Gobernu idazkariak *Edilberto Ramón*-ek azpimarratu zuten bere aldetik ere aipatutako ikuspuntua.

*Manigua* amazonikoaren arimaren espresio plastikoa den *Fundacomunidad*-en eskutik hurbiletik ezagutu genuen *ASOMUPCAR*-ren zeregin izugarria, lan kooperatiboari bultzada eta sexu langileentzako etxebizitza proiektuak, emakumearen borroka ez parekoa, degradatua edo kanporatua, bere giza duintasuna aintzat hartze osoa lortzeko. *Beatriz Rodríguez* nekaezinarekin partekatzen dugu hunkitzen gaituen zeregin honetan haiek guztiak bultzatzen dituen ilusioa, ordezkatzten dituen proiektuen finkotasunaz eta aurrerapenez harrotasun osasuntsua eta artegatasunaren bat ere bere proiekturen baten eskuragarri dauden gaurko baliabide eta gizarte izaera etorkizunerako mantentzearen ariaz.

Ontzixkan egindako *Florencia*-tik *Solano*-rainoko bidaiak paregabeko aukera izan zen *Orteguaza* ibaiak zeharkatzen dituen paraje zoragarriak ikusteko, ibai hau *Caquetá* ibaiarekin lotzen da, *Amazonas* handiko bigarren ibaiadarra izanik. *Solano*-rako bisita kalitatezko lekukotza grafikoan aurki daiteke. *Mariana García* eta *Luis Alfredo Capera*, *Belén de los Andaquíes* eskola audiobisualetakoek den-dena erregistratu zuten, *Sandra Norma Carvajal* alkatesak eta bere Udal Kontzeju-k eskainitako protokolozko harrera barne.

*Solano*-ko *huitoto*-ekin tribuaren *Maloka* elkarri banatu genion. Tribuaren burukidea den *Roberto*-ren aurrean antropologia aplikatu saio bat konpartitu genuen. *Aníbal Quiroga*-k, *Amazonía*-ko Unibertsitatean irakasleak eginiko galdera egokiek kilikaturik, adierazpen lasaiko gizona, tribuko kidea eta *Solano*-ko zinegotzia *Munina Oswald* *Perdomo*-k gizarte ekintzaren garrantzia, bizi nagusitasunaren izaera eta indigenentzat *Maloka*-k daukan batzeko indarra azaldu zituen.

*Florencia*-n berriro, *Garidka*-n<sup>1</sup> (*huitoto* hizkuntzan “unea” eta komunitatea bere arazoei buruz eztabaidatzeko eta konpontzeko elkartzen den tokia) bake kulturari buruzko tailerrak batu gintuen gu *Caquetá*-ko udalerrri eta komunitate indigenetan *Fundacomunidad*-ek eta *Gernika Gogoratzuz*-ek babestutako hainbat proiektuen bultzatzaile nagusiekin batera. *San Vicente del Caguán*-en, *El Doncello*-n, *Unión Peneya*, *Belén*-en, *Florencia*-n bertan eta horrez gain *Coreguaje* eta *Huitoto* komunitateetan garatzen ari diren ekintza desberdinak sare egituraren nodoak dira, multzoa irrikan osatzen duten zatiek: hain zuzen ere *Garidka* izena daraman proiektuaren bitartez bakearen berregitea.

**Senideen arteko agurra.** Geure curulen erosotasunera bueltatu eta gero, atzerriratze sentsazio deserosoa sentitu genuen. Ulergarria da. Oso egun gutxitan pasa genuen politikoki nahikoa eta zuzena denaren arlotik giza beharizanaren esparrura. Hain argi ikusi dugu hautakorra eta abstraktua, gauzen aurretik itxuraturiko, baldintzaturiko irudiaren eta errealitate hutsaren arteko distantzia. Hain hurbiletik egiaztatu dugu ongizate hutsaren gutxiagotasun morala, *homo consumericus*-arekin eta itxurazko erosotasunarekin parekatu, zorientasunarekiko gizarte atributu moduan harturik, zorientasun honek ez duelako bilatzen sufrimendua estaltzea, kreatibitate sozialarekin, elkartasunarekin eta, *ASOMUPCAR*-reko kolaboratzailea *Aníbal Hurtado*-k oso apropos esango zukeen moduan, umore onarekin aurre ematea baino.

Amaitzeko, senitarte agurra guztientzat gure partez. Oso bereziki *Neruda Díaz*-entzat eta *Fundacomunidad*-eko bere lankideentzat, hala nola *Gernika Gogoratzuz*-eko *María Oianguren* eta *Fernando Cruz* arduradunentzat, *Caquetá* eta *Kolonia*-ko guretzat hain ezezaguna eta batera hain esperantzagarria izan den errealitateko dimentsio baten barrenean gidatu gaituztenek.

Gipuzkoako Batzar Nagusietako ordezkaritza.

Rebeka Ubera.

Sole del Bosque

Arantza Aseginolaza

José Antonio Rekondo.

---

1 **GARIDKA: Amazonia-ko lurraldean elkarbizitza baketsurako balioen eta ekintzen indartzea (2008-2010).** Bilgune Sarea-k (Ideasur, Gernikatik Mundura eta Gernika Gogoratzuz) eta Caquetá-ko Fundacomunidad koloniar erakundeak batera burututako proiektua. Bizkaiko Foru Aldundiak batera finantziatua.